

## **MATERIAL BIRZIKLATUEKIN EGINDAKO GABONETAKO** **ZUHAITZEN LEHIAKETAREN OINARRIAK**

Lehiaketaren bidez, 10 urtetik gorako amurriorek gure udalerriko saltokien Gabonetako kanpainan parte hartzea lortu nahi dugu. Horretarako, material birziklatuekin Gabonetako zuhaitzak egitera animatu nahi ditugu. Zuhaitzak saltokietako erakusleihoetan jarriko dira 2016ko abenduaren 22tik 2017ko urtarrilaren 5era arte.

Banaka edo taldeka (gehienez ere 5 pertsona) parte hartu ahal izango da.

**IZEN-EMATEA:** [www.apymca.com](http://www.apymca.com) webgunean lehiaketan izena emateko orria dago eskuragai.

**IZENA EMATEKO EPEA:** 2016ko azaroaren 15etik 30era.

**ZUHAITZAK AURKEZTEKO EPEA:** abenduaren 16an, 17an, 19an eta 20an, Kultur Etxeko ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 21:00etara; eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara).

**KATEGORIAK:** Bi kategoria egongo dira:

- 1. kategoria: 10 eta 18 urte bitarteko parte-hartzaileak.
- 2. kategoria: 18 urtetik gorako parte-hartzaileak.

**BALDINTZAK:** zuhaitzak material birziklatuekin egingo dira, eta gutxienez 40 zentimetroko altuera eta gehienez 90 zentimetrokoa izango dute.

**GABONETAKO ZUHAITZEN ERAKUSKETA:** lehiaketara aurkeztutako zuhaitzak hala nahi duten Apymcako kide diren establezimenduetako erakusleihoetan egongo dira erakusgai, 2016ko abenduaren 22tik 2017ko urtarrilaren 5era arte.

Aurkeztutako obren arteko zozketa egingo da, bakoitza zein saltokian erakutsiko den zehazteko.

Saltokiak baino obra gehiago badaude, lehendabizi zozketa bat egingo da saltokietan zein zuhaitz eta Kultur Etxean zein erakutsiko diren zehazteko. Ondoren, beste zozketa bat egingo da, zuhaitz bakoitza zein saltokian erakutsiko den zehazteko.

**BOZKETA:** era telematikoan egingo da, Apymcaren *app*-aren bidez, 2016ko abenduaren 22aren eta 2017ko urtarrilaren 4aren artean. “Apymca” *app*-a Apple Store-n eta Play Store-n deskarga daiteke. Botoa emateko, boto-orriaren eremu guztiak bete behar izango dira.

Pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahal izango du.

**SARIAK:**

1. kategoria: 250 € erosketa-txarteletan, herritarren bozketaren bidez hautatutako zuhaitz onenari.

2. kategoria: 250 € erosketa-txarteletan, herritarren bozketaren bidez hautatutako zuhaitz onenari.

Parte-hartzaile guztien artean 50,00 euroko bi erosketa-txartel zozkatuko dira.

**SARI-BANAKETA:** irabazleen sari-banaketa 2017ko urtarrilaren 5ean izango da, 12:00etan, Kultur Etxeko ekitaldi-aretoan.

**AMAIERAKO ARAUAK:** lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri guztiak onartzea dakar. Oinarrietan aurreikusi ez diren kasuak antolakuntzak interpretatu eta ebatziko ditu. Baliteke sariak eman gabe geratzea.